Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1622

EBAZPENA, 2011ko otsailaren 21ekoa, Energia eta Meategien zuzendariarena; honen bidez, Lezama udalerriko Aretxalde auzoko «Kantara» deituriko 5307. zk.ko Transformazio Azpiestaziorako 13,2 kV-ko zirkuitu bikoitzeko Lezama-Zubia aire linea elektrikoa onura publikokoa dela deklaratzen da.

Erref.: L-7447 -AS-BMR.

Esp.: AT-H-2010-58.

AURREKARIAK

Bat.– Energia eta Meategien zuzendariaren 2010eko uztailaren 27ko Ebazpenaren bidez Lezama udalerriko Aretxalde auzoko «Kantara» deituriko 5307. zk.ko Transformazio Azpiestaziorako 13,2 kV-ko zirkuitu bikoitzeko Lezama-Zubia aire linea elektrikoaren ezarpena eta egikaritze-proiektua onartu zen.

Bi.– 2010eko uztailaren 21ean, Iberdrola Distribución Eléctrica SAk (Bilboko San Adrián kalea 48) aipatutako linea elektrikoari doakion egikaritze-proiektua herri-onurako deklaratzea eskatu zuen. Hartarako, Miguel de Loredo Mutiozabal industria-ingeniari teknikoak sinatutako eta Bizkaiko Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialak 2010-07-16an 4259 zenbakiz bisatutako proiektu teknikoa aurkeztu zuen, eskabidearekin batera.

Hiru.– Abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuko 144. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Iberdrola Distribución Eléctrica SAren aipatu eskabidea jendaurrean erakusteko iragarkia argitaratu zen, 2010-11-12an BAOn, 2010-12-07an EHAAn eta 2010-12-14an El País egunkarian, enpresak desjabetu beharrekotzat jotzen dituen eskubide eta ondasunen zerrendarekin batera.

Lau.– 2010eko azaroaren 2an ofizio bat igorri zen Lezamako Udalera adierazitako iragarkia bertako Ediktuen Taulan jartzeko; horretaz gain, Udalari eskatu zitzaion txosten baten bitartez adierazteko egokitzat jotzen zuten edo ez instalazioa onura publikoko deklaratzea.

Bost.– Jendaurrean jartzeko epean ez da partikularren alegaziorik sartu.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

1622

RESOLUCIÓN de 21 de febrero de 2011, del Director de Energía y Minas, por la que se declara la utilidad pública de la línea eléctrica aérea de 13,2 kV Lezama-Zubia cto. 2, derivación al C.T.I. n.º 5307 denominado «Kantara» en el barrio Aretxalde, en el término municipal de Lezama.

Ref.: L-7447 -AS-BMR.

Exp.: AT-H-2010-58.

ANTECEDENTES DE HECHO

Uno.– Por resolución de 27 de julio de 2010, del Director de Energía y Minas, se autorizó la instalación y aprobó el proyecto de ejecución de la línea eléctrica aérea a 13,2 kV Lezama-Zubia cto. 2, derivación al nuevo C.T.I. n.º 5307 denominado «Kantara» en el barrio Aretxalde, en el municipio de Lezama.

Dos.– Con fecha 21 de julio de 2010 la empresa Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A. con domicilio en Bilbao, c/ San Adrián, 48, solicita la declaración de utilidad pública de la línea arriba referenciada, aportando instancia al respecto acompañada del proyecto técnico correspondiente firmado por el Ingeniero Técnico Industrial D. Miguel de Loredo Mutiozabal y visado por el Colegio Oficial de Ingenieros Técnicos Industriales de Bizkaia el 16-07-2010 con el n.º 4259.

Tres.– A los efectos previstos en el artículo 144 del Real Decreto 1955/2000, de 1 de diciembre, fue publicado el anuncio por el que se somete a información pública la citada solicitud de Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A. en el BOB con fecha 12-11-2010, en el BOPV con fecha 07-12-2010 y en el Diario El País con fecha 14-12-2010, junto con la relación de bienes y derechos que dicha empresa considera necesario expropiar.

Cuatro.– Con fecha 2 de noviembre de 2010 se remitió oficio al Ayuntamiento de Lezama a fin de que se procediese a la exposición del anuncio citado en el Tablón de Edictos del mismo, así como petición de informe de la procedencia o no a la declaración de Utilidad Pública de la instalación.

Cinco.– Dentro del período de información pública establecido al efecto no han tenido entrada alegaciones de particulares.

OINARRI JURIDIKOAK

Espedienteak betetzen ditu Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeak, energia elektrikoko instalazioen garraioko, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimentze-prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak, Eusko Jaurlaritzak abenduaren 3an emandako 282/2002 Dekretuak eta bat datorren gainerako legediak agintzen dituen arauzko izapideak.

Energia eta Meategien zuzendariak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuan (2009-09-24ko EHAA) eman zaizkion ahalmenen indarrez, honako hau

EBATZI DUT:

Honako ezaugarriok dituen instalazioa onura publikokoa dela deklaratzea:

Aireko linea elektrikoa:

– Zerbitzu-tentsioa: 13,2 kV.

– Eroaleak: AL-AC-ko 3, LA-56 tipoa (54,6 mm²).

– Euskarriak: metalikoak.

– Luzera: 90 m.

– Jatorria: 17. euskarria=0 Lezama-Zubia linea, 2. zirkuitua.

– Amaiera: 1 euskarria, linea bereko adarra.

Aipatutako azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 54. artikuluan ezarritakoaren arabera, deklarazio honek eraginpeko ondasunen okupazioa eta eskubideak eskuratzea dakar berekin, eta, hori ez ezik, horiek lehenbailehen okupatzea ere eskatzen du, baita Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluak Premiazko Okupazioa deklaratzeko ezartzen dituen ondorioak zehaztea ere, lege horren 53. artikuluaren erregistro-ondorioetarako.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke Industria eta Energia Sailburuordetzan, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 21a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
OSKAR ZABALA RABADÁN.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

En el expediente se han cumplido los trámites reglamentarios ordenados en la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico, Real Decreto 1955/2000, de 1 de diciembre, por el que se regulan las actividades de transporte, distribución, comercialización, suministro y procedimientos de autorización de instalaciones de energía eléctrica, Decreto 282/2002, de 3 de diciembre, del Gobierno Vasco y demás legislación concordante.

El Director de Energía y Minas, en virtud de las atribuciones conferidas en el Decreto 514/2009, de 22 de septiembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo (BOPV 24-09-2009)

RESUELVO:

Declarar la utilidad pública de la instalación cuyas principales características son:

Línea eléctrica aérea:

– Tensión de servicio: 13,2 kV.

– Conductores: 3 de AL-AC tipo LA-56 (54,6 mm²).

– Apoyos: metálicos.

– Longitud: 90 m.

– Origen: apoyo 17=0 de la línea Lezama-Zubia cto. 2.

– Final: apoyo n.º 1 de la derivación de la misma línea.

Llevando implícita esta declaración, a tenor de lo dispuesto en el artículo 54 de la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, la necesidad de ocupación de los bienes o adquisición de los derechos afectados, e implicando la urgente ocupación de los mismos y determinando las consecuencias que para la declaración de Urgente Ocupación dispone el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa de 16 de diciembre de 1954, con los efectos regístrales del artículo 53 de la misma.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Industria y Energía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la notificación de esta Resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de febrero de 2011.

El Director de Energía y Minas,
OSKAR ZABALA RABADÁN.